

# LUA

Legorretako Udal Aldizkaria

2017ko Azaroa

19

zenbakia

- 2 Aurrez Aurre  
Xabier Agirre  
Jesus Mari Arrizabalaga
- 4 Euskararen kaleko erabilera  
Euskararen Eguna
- 5 Hondakin sistemaren  
balorazioa
- 6 Echezarretan zer?
- 8 Labur labur
- 9 Ondo aparkatzeko kanpaina
- 10 Errezeta
- 11 Agenda
- 12 Argazki zaharra

***Etorkizuna  
eraikitzeko nahia***

# AURREZ AURRE: XABIER



**Elkarrizketatua:**

**Xabier Agirre**



*Xabier Agirre Lopetegik (Legorreta, 1963) Legorreta, Ordizia eta Tolosako ikastoletan egin zituen ikasketak. Ondoren, Donostiako Antzerti eskolan antzerki ikasketak egin zituen. Lehen promozio hartako ikaskide izan zituen Elena Irureta, Mikel Garmendia, Kontxu Odriozola, Kandido Uranga eta beste zenbait euskal aktore entzutetsu. Azpeitiko Antzerki Topaketetan aktore onenaren saria jaso zuen 1992an, Jaques eta nagusia antzezlanean eginiko lanagatik. Euskal Aktore Batasunak telebistako aktore hoberenaren sarirako izendatu zuen 2002an Goenkalen Xanti pertsonaiaren paperagatik. Telebista, antzerki eta zinean egin ditu lanak, honako hauek besteak beste: Goenkale, Bi eta Bat, Bai Horixe, Jaun eta Jabe, Xagu Tranpa, Erreleboa, Maite, Carretera y Manta, El Cazador de Dragones, Sukalde Kontuak, Zeru Horiek... 1995etik Txalo antzerki ekoizpen enpresaren arduraduna da. Gaur egun aktore lanak pixka bat bazterturik eduki arren, antzerkiari lotua jarraitzen du bere bizitzak produktore gisa. Arrizabalaga elkarrizketatzaileak Zurrut Show ekarri du elkarrizketara behin baino gehiagotan, eta garrantzitsua iruditzen zaigu aurretik hura zer izan zen gogora ekartzea.*

*'Zurrut Show' Legorretako Zurrut lagun taldea 1962-1965 urte bitartean jaiotako mutilez osatutako lagun kuadrilla da (Xabier Agirre, Josetxo Amondarain, Xabier Amondarain, Dani Arakistain, Jesus Mari Arrizabalaga, Jose Joakin Blanco, Adolfo Cambero, Alex Ezkurdia, Ramon Garmendia, Rafa Garrido, Migel Insausti, Kostan Iturrioz, Patxi Iturrioz, Joxe Mari Jauregi eta Imanol Lazkanoiturburu).*

*1979 eta 1980. urteetan, herri jaiak girotzeko asmoz, garai hartan oso modan zegoen Orkesta Mondragon musika taldearen imitazio ikuskizuna plazaratu zuten zineman herri jaietan. Aurreko esperientziak herrian izandako arrakastaren eraginez, 1986ko herri jaietan Zurrutekoek 1985ean benetan gertatu zen Legorretako Herri Zinemaren inaugurazioa parodiatu zuten, orduan alkate zen Bixente Esnal eta John Travolta, Miguel Bose, Cantando bajo la lluvia, Cavaret, Les Luthiers eta beste zenbait artista herrira ekarri. 1987an, berriz, Legorretako I. Nazioarteko Film Jaialdia antolatu zuten. Bertan, kuadrillako kideek imitatutako beste hainbat artistaren emanaldiak izateaz gain, eurak pentsatu eta grabatutako bi labor musikal aurkeztu zituzten. Horietako bat, Dire Straits musika taldearen abesti batean oinarritua.*

**Elkarrizketatzailea:**  
**Jesus Mari Arrizabalaga**



# AGIRRE eta JESUS MARI ARRIZABALAGA

## Labur esanda, zertan aldatu da eta zertan ez Xabier Agirre 'Zurrut Show'-tik Txalora?

Aldaketa nabariena lagun arteko jolas bat zena nire lanbidea bihurtu dela, nire bizitzaren oinarrietako bat. Eta zertan ez? Oraindik Xabier txiki izaten jarraitzen dudala.

## Egin dezagun amets: zer izatea gustatuko litzaizuke zarena izango ez bazina?

Gaztetan, futbolari edo pilotaria; gaur egun, berriz, buruan dudan pertsonaia zoragarri bat antzestu ahal izatea. Jejeje, eta altuxeagoa izatea.

## Zure ustez zer falta eta zer du sobera Legorretak?

Jexuss, hau duk galdera, hi! Niri oso herri txiki konpletoa iruditzen zait; denetik dauka, eta bertan dagoen baliorik handiena HERRITARRAK dira, kaletarrak gara, festazaleak, herriarekin konprometituak eta, batez ere, herria asko maite dugunak.

## Ongi dakigu Legorreta asko maite duzula; urtean egun bakar batean bakarrik etortzerik izango bazenu, zein aukeratuko zenuke eta zergatik?

Korpus eguna, goizetik krosarekin hasita egun guztian zehar eta

goizaldera arte herri guztiak parte hartzen duen eguna delako.

## Egizu egun horretarako plana?

Goizean, ahal bada, korri egin; arratsaldean, ardo dastaketan parte hartu; gero, beste bakarren batek hartu eta preparatutako karakol batzuk jan, eta, gauean, rock-and-rolla.

## Beti izan duzu bihurri fama: kontaiguzu zer gertatu zitzaizuen urtarrilaren 14an Hondarribian estreinatuko den antzezlanerako grabaketak egiten ari zinetela.

Kontatzeko luze xamarra iruditzen zait, eta, gainera, bere garaian herri guztiak jakin zuenez, onena antzezlan herri- etortzen denean ikustera joatea gonbidatzea izango da, hala benetan gertatutakoa irakurri ez ikusi egingo duzue. Antzezle nagusiak Migelin Waine eta Biri Ford dira.

## Abenduaren 22an Legorretan izango zara, Txaloren 'Ondoko hilibiko tipoa' antzezlanarekin. Zer sentitzen da norberaren ekoizpena herrira ekarrita?

Lehenengo, poz handia ematen dit, ze Legorretan beti izan da afizio handia. Gogoratu Manuela eta Jertrudis-etik hasita zenbaterainoko afizioa zegoen herrian. Nik lan honekin, gainera, badut zerbait berezia: nire anaia Manueli eskainitakoa da.



ONDOKO  
HILOBIKO TIPOA

KATE MOTZEAN

### Definitu ondorengoak:

#### Bilkoin?

Musa eta futbola.

#### Egiñu?

Gure familiaren baserria eta jaiotetxe maitea.

#### Azintzio jaiak?

Herriko parranda.

#### Zurrut? Zurrut Show?


Ilusioz betetako lagun arteko jolasa.

#### Txalo?

Ametsak betetzeko bidea.

#### Herri Antzokia?

Herriaren txoko preziatuenetakoa.



# EUSKARAREN KALEKO ERABILERAREN DATUAK LEGORRETAN

Uema udalerrri euskaldunen mankomunitateak, Soziolinguistika Klusterraren laguntzarekin, euskararen kaleko erabilera neurtu du. Kaleko elkarrizketen datuak hartzean datza neurketa; jendeak kalean zein hizkuntzatan hitz egiten duen, hain zuzen.

Legorretan, herritarren %67,1ek egiten dute euskaraz kalean. %31,30ek gaztelaniaz, eta %1,70ek beste hizkuntza batzuetan. Adinaren arabera, berriz, hauek dira datuak: umeez, %90 euskaraz; gazteek, %76,50; helduek, %60,10; adinekoek, %43,3. Bistan da, beraz, umeez egiten dutela gehien euskaraz, eta gutxituz joaten dela erabilera hori helduz doazen heinean.

Eta solaskide taldeen arabera, berriz, hara: haurren artean, %94,50ek egiten dute euskaraz; nagusien artean, %54,7k; eta nahasian, %84,90ek. Horrek esan nahi du euskaraz badakiten heldu askok gaztelaniaz egiten dutela euren artean, eta umeekin aritzeko jotzen dutela euskarara.

## EUSKARAREN EGUNAREN INGURUKO EKINTZAK

Abenduaren 3a da Euskararen Nazioarteko Eguna, eta, egun horren bueltan, abenduaren 1ean, hainbat ekintza izango dira.

### Ugaro eskolak antolatuta:

*Eguraldi ona bada:*

- 09:30-10:30: abestiak gimnasioan.
- 10:30-11:00: atsedena.
- 11.00-12:30: altxorraren bila herrian zehar.

*Eguraldi txarra bada:*

- 10:00-11:00: abestiak gimnasioan.
- 11:00-11:30: atsedena.
- 11:30-12:30: globoekin 'hitz politaren' ekintza, gero balkoitik zintzilikatze.

### Elegunea euskara elkarteak antolatuta:

'Begira, begira, zuk horrela egingo zenuke?' izeneko erakusketa.

'Euskararen arbola' haur, gazte eta helduentzat.

- 17:00etan hasita, udaletxe inguruan.

# HONDAKIN SISTEMAREN ALDAKETAREN BALORAZIOA

Hondakinak biltzeko sistemaren aldaketak emaitza onak eman ditu. Urrian, esaterako, %74 bildu da gaika; ondorioz, bete da udaleko bi alderdiok hasieran jarritako helburua, %72 lortzea baitzen. Hala ere, hobetzeko tarte handia daukagu oraindik; izan ere, 2013ko urrian, esaterako, %79ra ere iritsi ginen, eta horixe eta gehiago lortzea izan behar dugu helburu.

Aldaketa bi zatitan banatu behar da: auzoak eta herrigunea. Izan ere, auzoetako aldaketa irailaren hasieran egin genuen, eta hilabete horretako datuak oso esanguratsua dira: esate baterako, errefusari dagokionez, 2016ko irailean baino 2.000 kilo gutxiago bildu dira aurtengo irailean. Geltokiko gunea eta Berostegikoa ezabatzeak ekarri du aldaketa hori. Beraz, begien bistakoa da aldaketa hori oso-oso eraginkorra eta positiboa izan dela. Herriguneko aldaketa irail bukaeran egin eta gero, iraileko eta urriko datuak ditugu esku artean, herri osoko datuak. Aldaketa, oro har, positiboa izan da. Irudiko taulan ikus daitekeenez –betiere konparazioa 2016ko hilabete berberekin eginda–, aldaketa nabaria da. Papera, esaterako, bi tona gehiago bildu dira; ontzi arinak, hiru tona gehiago; organikoa, ia sei tona gehiago. Eta, horren ondorioz, gaikako bilketan sei puntu egin da gora.

	2017			2016		
	Iraila 17	Urria 17	Batuketara	Iraila 16	Urria 16	Batuketara
Edukiontzi grisa / Contenedor gris	8.780	9.820	18.600	10.720	10.160	20.880
Traste zahar birziklaezinak / Voluminosos no reciclables	757	821	1.578	0	0	0
Iglu berdea / Iglu verde	1.315	3.850	5.165	2.602	4.320	6.922
Edukiontzi urdina / Contenedor azul	4.660	5.780	10.440	4.140	4.120	8.260
Kartoi komertziala / Cartón comercial	0	540	540	0	0	0
Edukiontzi horia / Contenedor amarillo	2.580	6.080	8.660	2.860	2.840	5.700
Edukiontzi marroia / Contenedor marrón	13.080	11.640	24.720	9.760	8.580	18.340
Iñausketa eta lorazaintza / Poda y jardinería	300	0	300	0	0	0
Traste zahar birziklagarriak / Voluminosos reciclables	625	656	1.281	0	0	0
Arropa zaharrak / Ropa usada	802	893	1.695	685	654	1.339
Pilak / Pilas	12	12	24	13	10	23
Sukaldeko olio / Aceite de cocina	75	150	225	175	260	435
<b>GUZTIRA / TOTAL</b>	<b>32.986</b>	<b>40.242</b>	<b>73.228</b>	<b>30.955</b>	<b>30.944</b>	<b>61.899</b>
Birziklatzera / A reciclaje (kg)	23.449	29.601	53.050	20.235	20.784	41.019
Zaborteigira / A vertedero (kg)	9.537	10.641	20.178	10.720	10.160	20.880
<b>GUZTIRA / TOTAL</b>	<b>32.986</b>	<b>40.242</b>	<b>73.228</b>	<b>30.955</b>	<b>30.944</b>	<b>61.899</b>
Birziklatzera / A reciclaje (%)	71%	74%	72%	61%	67%	66%
Zaborteigira / A vertedero (%)	29%	26%	28%	39%	33%	34%
<b>GUZTIRA / TOTAL</b>	<b>100%</b>	<b>100%</b>	<b>100%</b>	<b>100%</b>	<b>100%</b>	<b>100%</b>

## Valoración del cambio del sistema de recogida de residuos


El cambio del sistema de recogida de residuos ha dado buenos resultados. En octubre, por ejemplo, se ha recogido un 74%. Aun así, hay mucho margen de mejora, y tenemos que seguir en ese camino: en octubre de 2013, por ejemplo, llegamos a un 79%.

La primera semana de septiembre se llevó a cabo el cambio de los barrios, y fue todo un acierto. Con la eliminación de los puntos negros de la estación y Berostegi se recogieron dos toneladas menos de la fracción resto. El cambio del casco se hizo la última semana de septiembre, y, hoy en día, tenemos los resultados de septiembre y octubre. Como podéis observar en el cuadro de la imagen, la mejora es notable.



# ECHEZARRETA

## Foru Aldundiari eginiko proiektu proposamena



Echezarreta paper fabrikaren eraikin multzo bat, Oria ibaiaren ondoan dagoena, diputazioaren jabetzakoa da gaur egun. Egoera txarrean zegoenez, irtenbide bat emateko erosi zuen diputazioak. Haren asmoa zen bulegoen eraikina eta tximinia mantentzea eta gainerako guztia eraistea.

2015. urte amaieran, ordea, ez erais-teko eskatu zion Legorretako Udalak,

eta denbora emateko proiektu bat egin eta berari aurkezteko. Bi helburu zituen udalak hori eskatzeko: batetik, eremu horretako lurzoru industrialak ez galtzea -behin eraitsiz gero ezingo delako berriro eraiki-, eta, bestetik, eraikin mul-tzoaren ondare balioari eustea -diputazioak berak aitortua dio balio hori, eta, horrez gain, bulegoen eraikina babestuta dago herri mailan, urbanistikoki-.

Legorretako Udalak bere kasa eragiteko ahalmen handirik ez zuela ikusita, Goieki Goierriko garapen agentziara jo zuen, eta hark berehala ikusi zuen aukera eskualdeko estrategian txertatzeko Legorretako Echezarreta paper fabrikaren eraikin multzoa; izan ere, ikusi zuen eskualde mailan ere aukera berriak eman zitezakeela, eta estrategikoa izan zitezkeela: Goiekiren inkubategian sortutako enpresek ga-



ratzeko espazioa behar dute, eta, horretarako, aukera ezin hobe litza-teke industria arloari dagozkionak Legorretara ekartzea. Hala sortu zen elkarlana, eta, 2016ko irailean, Foru Aldundiak diru laguntza bat eman zion Goiekiri, eskualderako garapen jasangarriko estrategia definitu eta proiektu bat aurkezteko.

Proiektu horren barnean garatu dute, hain zuzen, Echezarretarako proposamena ere. GAC arkitektura bulegoa ibili da lan horretan, industria ondarearen arloan esperientzia duten arkitektoz osatutako talde bat, hain zuzen. Urtebeteko lana izan da, lan mardula, eta irailean aurkeztu zitzaion Foru Aldundiari, Legorretako Udalak, Goieki garapen agentziak eta GAC arkitektura bulegoak, elkarrekin. Proiektu horri eusteko eta hura garatzeko finantzaketa bere gain hartzeko ere eskatu genion. Diputazioak jar lezakeen diru kopuruaz gain, finantzabide osagarri batzuen bila ere bagabiltza, Goiekiren bidez. Europako diru iturriak tartean.

Proiektuaren xehetasunak azaltzeko, aurkezpen bat izango da abenduaren 2an, 11:00etatik 12:30etara, Herri Antzokian. Ez da sarrerarik beharko. Euskaraz izango da, gaztelaniarako aldibereko interpretazioarekin.

Zaila izango da ametsa betetzea, baina lanean jarraituko dugu, Echezarretak etorkizunean ere garai batean bezalako garrantzia izan dezan gure herrian, eta bide berri bat izan dadin gure herria eraikitzen segitzeko.

# ECHEZARRETA PAPER FABRIKA: etorkizunean zer?

Ezagutu Legorretako Udalaren proiektu proposamena

Herri Antzokian

Abenduak 2. 11:00-12:30



## **Echezarreta** **Propuesta de proyecto realizada a la Diputación Foral**

*Hoy en día, una parte de la papelera Echezarreta -aquellos edificios que se encuentran cerca del río- es propiedad de la Diputación Foral. A finales de 2015, el Ayuntamiento le solicitó no derribar el edificio, con la intención de elaborar un proyecto para estudiar su viabilidad. Todo ello, con la intención de no perder suelo industrial y preservar el valor patrimonial de dicha construcción. Así pues,*

*el Ayuntamiento acudió a la agencia de desarrollo Goieki, y mediante el estudio de arquitectura GAC, se ha redactado un proyecto sostenible para la comarca, en el cual se encuentra el proyecto para una parte de Echezarreta. Ha sido un trabajo de un año, y en septiembre presentamos el proyecto a la Diputación Foral. Así mismo, le pedimos que asumiera la financiación del proyecto.*

*El 2 de diciembre, se hará una presentación pública en Herri Antzokia, de 11:00 a 12:30. La presentación será en euskera, pero habrá interpretación simultánea al castellano, con una intérprete profesional.*

*Será difícil cumplir ese sueño, pero seguiremos trabajando en ello.*

# LABUR - LABUR

## Legorretazaharrera ura eramateko lanak

Gipuzkoako Ur Kontsortzioa urtarrilean hasiko da Legorretazaharreko lanekin. Hogeita aste iraungo dute lanek; beraz, eta ondo bidean, ekainerako bukatuko dituzte lanak.

### *Las obras de Legorretazahar*

*El Consorcio de Aguas de Gipuzkoa empezará en enero con los trabajos para llevar agua a Legorretazahar, y durarán veinte semanas; con lo cual, para junio estarán terminados.*

## Frontoiko sabaia berritzeko lanak

Aurreko LUAn jakinarazi genizuen frontoiko sabaia aldatu egingo dela, erabat zulatuta dagoelako. Urtarrilean egingo dira lanak, eta astebete iraungo dute.

### *El techo del frontón*

*Los trabajos para cambiar el techo del frontón se llevarán a cabo en enero, y durarán una semana.*



## Arkitekto berria urtarrilaren 1etik aurrera

Arkitekto postua ateratzeko oposizioak amaituta, Legorretako Udalak arkitekto funtzionarioa izango du aurrerantzean: Beñat Mendiburu. Datoren urtean hasiko da, eta astelehen, asteazken eta ostegunetan etorriko da udaletxera.

### *Nuevo arquitecto a partir del 1 de enero*

*Después de haber terminado las oposiciones de arquitecto, en adelante el Ayuntamiento de Legorreta dispondrá de un arquitecto funcionario: Beñat Mendiburu. Empezará el año que viene, y vendrá al ayuntamiento los lunes, miércoles y jueves.*

## Urdanetako zorua berritzeko lanak

Abendu hasieran hasiko dituzte Urdaneta auzoko bidea berritzeko lanak, eta 25 lanegun inguru beharko dituzte. Dena dela, eguraldiaren baitan egongo da lanen iraupena.

### *Trabajos para arreglar el suelo de Urdaneta*

*A principios de diciembre empezarán los trabajos para arreglar el camino del barrio Urdaneta, y necesitarán 25 días laborales para terminarlos. Aun así, dependerán mucho del tiempo que haga.*

## Zinegotzi aldaketa

EH Bilduren udal taldeko kide Nerea Perez Dorronsorok kargua utzi zuen urrian, eta abenduko osoko bilkuran hartuko du, haren orde, Iñigo Lasa Ormaetxeak.

### *Cambio de concejal*

*La concejala del grupo EH Bildu Nerea Perez Dorronsoro presentó su dimisión en octubre, y, en el pleno de diciembre, tomará el cargo Iñigo Lasa Ormaetxea.*



# ONDO APARKATZEKO KANPAINA

Agerikoa den moduan, azkenaldian gure herrian ez dira asko errespetatzen aparkalekuak, eta arazo asko sortzen dizkie horrek bai oinezkoei eta bai gidariei ere. Herritar askoren kezka jaso ditu udalak. Hori dela eta, eta arazoari konponbidea eman behar zaiola iritzita, neurriak hartu nahi ditu gaur egungo egoera deseroso eta narrats honi buelta emateko asmoz. Gidari guztiok dabilgun moduan, marra zurietatik kanpo dauden auto guztiak desgoki utzita daude, horretarako margotzen baitira. Beraz, eta egoerak okerrera egin aurretik, arazo honetan esku hartzea erabaki du udalak. Intentzioa da aurrerantzean, eta betiko, nork bere partetik jarri eta egoki aparkatzea. Horretarako, azaroaren 27tik abenduaren 5era gaizki aparkatuta dauden kotxei abisuak jarriko zaizkie. Neurri horrek behar adinako eraginik izaten ez badu, eta soilik kasu horretan, ez da baztertzeko neurria martxan jartzea -abenduaren 5ean erabakiko da neurri horiek hartu edo ez-. Denok ulertu eta errespetatuko dugulakoan, eta neurri zuzentzaile eko-

nomikorik jarri beharrik ez izateko esperantzarekin, herria zaindu eta errespetatu dezagun.

Hona hemen desgokien erabiltzen diren tokiak:



*Como es evidente, en nuestro municipio no se respetan mucho los aparcamientos, lo que ocasiona problemas tanto como a los peatones y a los demás conductores. Por ejemplo, todos somos sabedores de que todos aquellos vehículos aparcados en sitios delimitados con líneas que no son blancas, están mal aparcados. Últimamente se han recibido varias quejas en el Ayuntamiento, debido al mal uso de los aparcamientos por parte de algunos vecinos. Con el fin de que el problema no se agrave y con la intención de que*

*cada vecino y vecina asuma su responsabilidad y aparque en los aparcamientos habilitados para ello, el Ayuntamiento avisará de las infracciones en aquellos coches mal estacionados; esto se hará del 27 de noviembre al 5 de diciembre. Si esta medida no surgiera efecto, no se descarta utilizar sanciones económicas. Esperamos una respuesta responsable por parte de los y las legorretarras.*

## ABENDUA

**1 Euskararen Egunaren inguruko ekintzak**

**21 Echezarreta paper fabrikarako proiektu proposamenaren aurkezpena**  
11:00 / Herri Antzokian

**15 Elkartasun azokarako materiala uzteko azken eguna**  
Udaletxean eta kultur etxean  
(jostailuak, elektrogailuak, jantziak, liburuak...)

**15-16 Gaztetxearen urteurrena**

**21 San Tomaseko ospakizuna Ugara eskolako ume eta irakasleekin**  
Goizez / Frontoian

**22 'Ondoko hilobiko tipoa' antzezlan**  
Txaloren eskutik.  
19:30 22:30 / Herri Antzokian / Sarrera: 10 euro.

**24 Olentzeroren etorrera**

**27 Zirku tailerra**  
**12-16 urte bitarteko gazteentzat**  
17:00 - 19:00 / Frontoian

**23 'Irrikula Makula' ikuskizuna umeentzat**  
Irrien Lagunen eskutik  
18:00 / Herri Antzokian / Sarrera: 3 euro.

**30 Haur jolasak**  
17:00 / Frontoian

**31 San Silvestre krosa**

## AGENDA

### AZAROA

**25 Indarkeria Matxistaren Kontrako Eguna. Manifestazioa Donostian**  
19:00 / Bulebarrean

**26 'Volar' filma**  
19:00 / Herri Antzokian

**29 Ipuin kontalaria**  
18:00 / Liburutegian

# ERREZETA

Olaso taberna / Marijo Irastorza Egurbide

## Berenjena beteak



### OSAGIAK

- Berenjena
- Tipula
- Piper berdea
- Txanpinoiak
- Atun lata bat
- Gazta birrindua

### PRESTAKETA:

Berenjena hartu, eta erdibitu egingo dugu, barrualdea hustuz. Berenjena azalari labanaz barrualdean marratxo batzuk egin, eta labera sartu 15 minutuz. Tipula eta piper berdea zartagin batean erregosi eta gero, txanpinoiak laminatuta gehituko dizkiogu. Behin txanpinoiak egingakoan, berenjenaren barruko haragia eta atun lata nahastuko dizkiogu. Berenjenak beteko ditugu, eta berriz ere labera sartuko ditugu; aurretik, gazta birrindua botako diogu, eta hori gratinatu arte eduki bertan.

*Oharra: Platera apaintzeko eta gustu gehiago emateko perrexila edota pikillo saltsa erabil dezakegu.*

*On egin!*



Datorren hilean etorriko da Olentzero Legorretara, abenduaren 24an, Euskal Herriko gainerako herrietara bezalaxe. Umeei eskura banatuko dizkie opariak, garai batean bezala. Irudian, Jose Lontxo Soroizek egiten zueneko. Urte askoan aritu zen eginkizun horretan, baina ba al dakizue zehazki zenbat izan ziren?